

## BESTELAKO XEDAPENAK

### HEZKUNTZA SAILA

## 3549

*EBAZPENA, 2020ko uztailaren 23koa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena, EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko itunpeko ikastetxeak hautatzeko dena, hezkidetza, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra modu globalean, sistematikoan eta integratuan lantzeko jarduketa-proiektuak egiteko 2020-2021 eta 2021-2022 ikasturteetan.*

Hezkuntzako sailburuaren 2020ko maiatzaren 5eko aginduak egindako deialdian oinarrituta, eta Hautaketa-batzordeak izapidetutako espedienteak aztertuta, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Eranskinean jasotako itunpeko ikastetxeak hautatzea, 2020-2021 eta 2021-2022 ikasturteetan jarduera-proiektuak egiteko, hezkidetza, prebentzioa eta emakumeen aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarra modu globalean, sistematikoan eta integratuan lantzeko.

Bigarrena.– Hautatutako ikastetxe bakoitzari bi mila (2.000) euro esleituko zaizkio irakasleen prestakuntza-jardueren gastuei, eskola-komunitatearen gastuei eta proiektuaren koordinazio- eta zabalkunde-ekintzen gastuei aurre egiteko, proiektuak hartu behar dituen hiru ikasturteetatik lehenengoan. Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:

a) Lehenengo ordainketa – dirulaguntzaren % 60– esleitutako dirulaguntza onartu bezain laster egingo da.

b) Gainerakoa – dirulaguntza osoaren % 40– «Hezkidetza – Dirulaguntzaren justifikazioa» agiria aurkeztu ondoren ordainduko da; 2021eko ekainaren 30a baino lehen aurkeztu behar da agiri hori, behar bezala beteta.

#### AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 23.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria,  
LUCÍA TORREALDAY BERRUECO.

2020ko irailaren 9a, asteazkena

I. ERANSKINA  
2020-2021 IKASTURTEAN DEIALDIAN DIRUZ LAGUNDUTAKO IKASTETXEAK

Lurraldea	CIF/ NIF	Kodea	Ikastetxea	Diru laguntza
Araba	R0100128H	010235	CPEIPS Sagrado Corazón HLBHIP	2.000,00 €
Araba	G83003004	010234	Fundacion Educacion Marianista Domingo Lazaro	2.000,00 €
Bizkaia	R4800474A	014817	Colegio del Amor Misericordioso de Sestao	2.000,00 €
Bizkaia	F48980320	015220	Durangaldeko Ibaizabal KOOP E.	2.000,00 €
Bizkaia	F95681367	014732	Lourdes Ama KOOP. ELK.	2.000,00 €
Bizkaia	R4800466G	014766	CPEIPS Claret Askartza HLBHIP	2.000,00 €
Bizkaia	F48056337	014502	Luis de Eleizalde Ikastola S. COOP. de enseñanza	2.000,00 €
Gipuzkoa	R2000419H	013584	Salesianos Urnieta	2.000,00 €
Gipuzkoa	R2000130A	012430	Egiluze Hijas de la Cruz Hondarribia	2.000,00 €
Gipuzkoa	R2000408A	012565	Escolapios Orden de Clérigos Regulares-Prov Vasconia- Comunidad San José Esposo de Tolosa	2.000,00 €
Gipuzkoa	R2000166E	012399	Colegio San José de Floreaga Salesianos	2.000,00 €

2020ko irailaren 9a, asteazkena

II. ERANSKINA  
DIRU-LAGUNTZA UKATUAK

Kodea	Ikastetxea	Ukatzeko arrazoa	Lurraldea
012411	Junta Administrativa Colegio San Martín de Loinaz	Art. 5.6	Gipuzkoa